



NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# Metodologia aktiboak: txokoak eta jolas kooperatiboa Lehen Hezkuntzan

---

GRADU AMAIERAKO LANA

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea  
UPV/EHU  
**2020/2021 Ikasturtea**

Egilea: Maitane Lejardi Martinez

Zuzendaria: Paloma Rodriguez Miñanbres

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. HELBURUAK.....	4
3. MARKO TEORIKOA.....	5
3.1 Hezkuntza-berrikuntza eta metodologia aktiboak.....	5
3.2 Konfiantzaren pedagogia .....	8
3.3 Estrategia metodologikoak: Txokoak, eta Ikaskuntza kooperatiboa .....	9
3.3.1 Testuinguruak/Txokoak.....	10
3.3.2 Ikaskuntza kooperatiboa .....	11
4. METODOA .....	14
4.1 Partaideak .....	14
4.2 Datuak biltzeko prozedura eta teknika .....	14
4.3 Jarduerak .....	15
4.3.1. Irakaslearen rola txokoetan .....	16
4.3.2. Txokoen antolamendua.....	18
5. EMAITZAK.....	27
6. ONDORIOAK .....	36
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK .....	38
8. BIBLIOGRAFIA .....	39
ERANSKINAK.....	41
1. ERANSKINA.....	41
2. ERANSKINA .....	42
3. ERANSKINA .....	43
4. ERANSKINA.....	44
5. ERANSKINA .....	47
6. ERANSKINA.....	49
6.1 Eranskina .....	49
6.2 Eranskina .....	49
6.3 Eranskina .....	50
6.4 Eranskina .....	51

## ABSTRACT

### Euskara

Gauza jakina da belarrak edozein lekutan hasteko abilezia daukala; ingurunean dituen elementuek hazkuntza hori era batekoa edo bestelakoa izatea bermatuko dute. Hezkuntzan berdina gertatzen da, alajaina. Umeek leku guztietan aurki edo eskura dezakete hezkuntza, badakigulako horiek ikusten dutena imitatzen dutela, horregatik hezitzaileok haurrek behar duten ingurugiro ahalik eta egokiena eskaini behar diegu hazkunde egokia berma dadin.

Ondorengo orrialdeetan garatzen den gradu amaierako lan honek, egungo hezkuntza sistemaren gainean hausnartzeaz gain; Lehen Hezkuntzako etapan metodologia aktiboek, bereziki, txokoak eta jolas kooperatiboak duen funtzioaz eta garrantziaz jabetzea du helburu. Honenbestez, konfiantzaren pedagogiaz mintzatuko gara eta ikastola erreal batean aurrera eramandako esku hartzea erakutsiko da.

Horrela gure belartxoak lur ongarritu batean kokatu, ureztatu, maitasunarekin hezi, behar duten berotasuna eta argia jarri eta aipatutako hazkunde horretan lagun izan behar gaituzte. Pertsona izateko bidean aurrera egin eta bizitzarako prestatzen ikas dezaten.

**Hitz gakoak: Lehen Hezkuntza, metodologia aktiboak, konfiantzaren pedagogia, txokoak, jolas kooperatiboa.**

## ABSTRACT

### Castellano

Sabemos que la hierba tiene la tendencia de crecer en cualquier lado; los elementos que tengan alrededor influirán en dicho crecimiento, que hará que sea de un modo o de otro. Lo mismo pasa con la educación, en efecto. Los niños pueden aprender por cualquier fuente, pues ya sabemos que éstos imitan todo lo que ven; por lo tanto, los educadores tenemos que ofrecer a los niños el contexto más adecuado posible para asegurar un crecimiento digno y propio.

En las páginas siguientes de este trabajo de fin de grado, a pesar de reflexionar sobre la educación de hoy en día; tiene como fin, investigar la importancia de las metodologías activas, centrándose en los rincones de aprendizaje y el juego cooperativo y de la función que tienen en la etapa de educación primaria. Por lo tanto, se hablara sobre la Pedagogía de la Confianza y se mostrará una intervención llevada a cabo en una escuela real.

De modo que, nuestra hierba debe de situarse en una tierra fértil, regarla, darle el amor adecuado, el calor y la luz que necesiten y por esto es necesario que nos tengan al lado en el ya mencionado crecimiento. Con el fin de avanzar en la forma de aprender y prepararse para la vida.

Palabras clave: **Educación Primaria, metodologías activas, pedagogía de la confianza, rincones de aprendizaje, juego cooperativo.**

## 1. SARRERA

Gizarteak beharrezkotzat jotzen dituen hainbat trebetasun eta gaitasun ez dira ikasgeletan entrenatzen, baina, gizarte konplexu baten aurrean, izaera sortzaileak behar ditugu, “la vanguardia está en las personas que no saben exactamente dónde quieren ir, pero son los primeros en llegar” (Gary, 2009: 90).

Horrexegatik, hezkuntzaren betebeharra pertsona osoak, bakarrak eta autonomoak sortzen laguntzea bada, eginkizun horretan metodologia eraginkorrek duten garrantziari erreparatzea beharrezkoa da; hain zuzen, norbanakoaren garapen integrala zein lankidetzaz sustatzeko bide honetan ezinbesteko papera jokatzeko dutelako (Marina, 2004).

Metodologia bakoitzak irakaskuntza eta ikaskuntza metodo edo moduak ditu, arrakasta modu desberdin eta dinamikoagoan lortzeko. Gradu amaierako lan honetan, egun dauden zenbait metodologia aktibo ezagutuko dira, hala nola, konfiantzaren pedagogia, proiektu bidezko metodologia, txokoetan oinarritutako metodologia eta jolas kooperatiboa. Kasu honetan, azken bi metodologiak praktikara eramateko estrategietan sakonduko da, gehienbat.

Gauzak horrela, lan honen helburu nagusia, Haur Hezkuntzan ohikoagoak diren metodologiak Lehen Hezkuntzako etapan lantzearen eraginkortasuna ikertzea izan da, ikerketa kualitatibo bat abian jarritz. Ikerketa aurrera eramateko zenbait teknika (esku-hartzea eta talde-elkarrizketa) erabili dira Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako gela batean.

## 2. HELBURUAK

Gradu amaierako lan honek Ondarroako eskola jakin batean behatutako egoeran du sorburua. Alde batetik, ikasleengan behar besteko autonomiarik ez egotetik, eta bestetik, maiz direlako elkarren arteko eztabaida eta arazoak. Neska-mutil horiek irakaslearen presentzia, arreta eta azalpen etengabeak behar dituzte, eta, gainera, asko kostatzen zaie taldean lan egitea eta elkarri laguntzea.

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako gela batean, autonomia eta kooperatibitatea sustatzeko proposamen didaktikoaren helburuak honako hauek dira:

1. Bilaketa bibliografikoan oinarrituta, metodologia aktiboen bilakaera eta beharra ezagutzea.
2. Lehen Hezkuntzako etapan, txokoen bidezko metodologia eta ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako esku hartzea egitea.
3. Talde-lana eta berdinen arteko lankidetzaren sustatzea.
4. Gelako haurren autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna garatzea.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1 Hezkuntza-berrikuntza eta metodologia aktiboak

Berrikuntza definitzen da zenbait esku-hartze, erabaki eta prozesu, intentzionalitate eta sistematizazio maila batekin, jarrerak, ideiak, kulturak, edukiak, ereduak eta praktika pedagogikoak aldatzen saiatzen direnak (Carbonel, 2001).

XIX. mendearen amaieran, Espainiako zentroetan atzerapen nabarmena zegoen materialari eta pedagogiarri dagokienez, beste herrialde industrializatuekin alderatuta. Metodologia autoritarioak eta memoristikoak; zeinetan, irakasleak zekien guztia eta ezagutza guztiak ikasleei transmititzen zizkien. (Perikatxo, 2014).

XX. mendearen lehen herenean Eskola Berria sortu zen Eskola Tradizionalaren kritika gisa. Honen helburua haurraren interesetan eta bere gaitasunen aurrerapenean zentratzea zen, ikaslea eskolan subjektu aktibo bihurtuz eta bere ikaskuntzaren protagonista izanik.

Beraz, hezkuntza-eskola garaikidearen helburua ezin da oinarritu diziplina-dukien irakaskuntzan eta ikaskuntzan, baizik eta norbanakoaren ezaugarri, gaitasun edo gaitasun horien garapen berezian, ulertzeko eta jarduteko sistema konplexu gisa (Pérez, 2016).

Oso garrantzitsua da XXI. mende honetan ikasleei, ardura, sormen eta kritikarako gaitasun handiagoz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala eskaintzea (Perez, 2016). Honenbestez, metodologia aktiboari buruzko hausnarketa egitea erabaki da, ikasleengan lan kooperatiboa garatzeko eta gaur egun dituzten arazo nagusiei ematen zaizkien erantzunak, anitzak bezain esanguratsuak izateko.

Ikasketa autonomia eta gaitasunen garapena lortzeko, ezinbestekoa da, irakaskuntza, ikasleen eta irakasleen jarduerarekin eta inplikazioarekin harremanetan egotea. Horrek errespetuzko giroa, esperimentazioa, behaketa, inklusioa eta ikaskuntza aktiboa sustatzea eskatzen du (Blanco, 2007).


Osagai horiek ezinbestekoak dira egungo munduan bizirik irauteko. Izan ere, hezkuntzak aintzat hartu behar ditu gizarteko kide guztiak, inklusioa sustatu behar delako ikasle guztien artean, errealitatean islatzeko. Horrenbestez, funtsezkoa da ikasleek duten pentsatzeko eta egiteko modu ezberdinei erreparatzea eta hauek positiboki hartzea. Ez da ahaztu behar denok garela desberdinak eta aniztasunean aurkitzen dela edertasuna (Stainback, 2004).

Zoritxarrez, Lehen Hezkuntzara iristean, murriztu egiten dira alderdi ludikoak, eta berezotasuna eta konpetibitatea bultzatzen dituzten jarduerak bideratzen dira, gehienbat. Ikasleak etapa honeara heltzen direnean, estilo akademizistagoa du denak, eta lehen malgua zena, zurrunagoa bihurtzen da (Argos, 1998).

Hori dela eta, beharrezkoa da ikasgeletan lantzen diren edukiak metodologia ludikoen, parte-hartzailearen eta inklusiboen bidez jorratzea, horien bidez, errendimendu akademikoa ez ezik, norberaren hazkunderako oinarritzko gaitasunak ere sustatzen direlako; hala nola, garapen kognitiboa, arrazoitzea eta komunikazio-gaitasuna bezalako elementuak sartzen dira jokoan (Antero, 2016).

Metodologia aktiboak ikasleen irakaskuntza ikaskuntza prozesuetan oinarritzen dira, ikasleengan autonomia lortu nahi dutenak. Hauetan ikasleen parte hartze aktiboa sustatzen da eta metodologia informatiboak direnak baino askoz ikaskuntza gehiago sortzen dute (Fernández, 2009).

Dalek (1946) “ikaskuntzaren konoa” sortu zuen, nahiz eta berak beti “esperientziaren konoa” deitu zion; honen bidez, ikasleen ikaskuntzan metodo eraginkorrenak zeintzuk diren ikusi ahal da.



1. Irudia. Edgar Dalen ikaskuntza piramidea.

Piramidean ikus dezakegunez, ikasleek modu aktiboagoan egiten duten orok ikasketa-portzentaje handiagoa du; ikasleak hain aktibo ez dauden jarduerak, berriz, ikaskuntza-portzentaje txikiagoa dute.

Agerian geratu da irakaskuntzan jada ez dela nahikoa ezagutzen transmisio hutsa egitearekin. Ikasleek horien baitan dituzten erantzunak, barneko adimenak, aurkitu behar dituzte eta ez, ordea, dakitena edo momentuan ikasi dutena errepikatzen (Robinson, 2006). Hori lortzeko, Piagetek (1972) argi erakusten du ekintzan eta arazoaren konponbideen inguruan egiten dituen hausnarketagatik, lehenengo eskuko praktiken bizipenetan sinetsi eta hau burutzeko jarduerak esanguratsuen aldarrikapena sustatu behar dela. Beste era batera esanda, haurrak ikasten duenari zentzua eman eta bere irakaskuntza prozesuan zehar, pertsonaren partaidetza sustatu behar dela, probetxuzko testuinguruen bidez.

Funtsean sinplea dirudien arren, hezkuntzarekiko aldaketa sakona bezain garrantzitsuaz hitz egitea da, baina Galeanok zioen moduan (1998), utopiak ibiltzeko balio du, aurrerapausoak emateko, eta egunero lortzera bidean lan egiteko.



### 3.2 Konfiantzaren pedagogia

Konfiantzaren Pedagogia giza psikologiaren ezagutzan oinarritutako pedagogia berritzailea da (Cristobal, 2010). Bere esanetan, psikologia, pedagogia eta espazioekin lan egiten duen pedagogia da, zeinetan umearen sena eta seinaleak errespetatzen diren, horrela ikaslearen jakingura berpiztu eta gustura ikas dezan. Hurrengoak dira pedagogia berritzaile hau aurrera eramateko behar diren irizpideak (Cristobal, 2010):

- Ikastola, familiarekin eta komunitatearekin komunikazio aktiboa izatea
- Ume guztientzako ikastola, hots, ikastola inklusiboa
- Adin ezberdinetako umeen arteko komunikazioa
- Autonomiaren sustapena
- Umearen berezko erritmoaren errespetua
- Espazioaren, materialen eta dinamiken erakargarritasuna
- Etengabeko ebaluazioa

Konfiantzaren Pedagogia ikasgeletan askatasunean hezteko asmoz ezartzen da, ikaskuntza konstruktibo, autonomo eta inklusiboa sortzeko xedez. Pedagogia honen bitartez, haurarentzako babesgune bat sortu nahi da ikasgelatik, bitarteko etsairik eta beldurrik gabe, zeinetan ikaslea den bezalako erakutsi eta benetako nia landu dezakeen, entzutean, lankidetzan, balioetan eta heziketa emozionalean oinarrituta (Del Pozo, 2014). Ondorengo irudian grafikoki ageri dira Konfiantzaren Pedagogiaren onurak, zeinetan autonomia sustatzea eta lehiakortasuna eta individualismoa ezabatzea nabarmentzen diren:



#### 2. Irudia. Konfiantzaren Pedagogiaren onurak.

Iturria: Ekoizpen propioa Leighton eta Bustos Gómezen (2018) erreferentzia hartuta.

Bestalde, Konfiantzaren Pedagogiaren beste onura garrantzitsuenetako bat irakaskuntza-estilo bat sustatzen duela da, ikaslearen prestakuntza osotasun gisa hartzen duena, eta emozioak, logika, kalkulua, arreta, komunikazioa, memoria lantzen duena. Beti modu aktiboan eta autoaurkikuntzan oinarrituta (Fabel-Lamla eta Welter, 2012). Ikaskuntza aktiboaz hitz egiten denean, irakatsi beharrean, ikaslea ikasten jartzea esan nahi da. Hau da, ikaslea metodologiaren erdigunean kokatu eta alderdi ludikoa eta umoristikoa kontuan izatea, ikasten duenarekin gozatzeko. Izan ere, garunak arreta jartzen dio emozioa eta interesa sortzen dituen horri (Bisquerra, 2009).

### **3.3 Estrategia metodologikoak: Txokoak, eta Ikaskuntza kooperatiboa**

Askotan entzun izan dira Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren artean dagoen jauziari buruzko iritzi ezkorrak (Argos, Ezquerria, Castro, 2011). Lehen Hezkuntza hasten denean, haurrek erabateko aldaketei aurre egin behar izaten diete, lanaren antolaketan, espazioa antolatu eta erabiltzeko moduan, tutoreak jokoaren hezkuntza-balioaz duen pertzepzioan, etab.

Curriculumak lan zama leundu beharrean, irakaslea estutu egiten du, esaterako, Haur Hezkuntzan ohikoa den alfonbra desagertu egiten da eta mugimendu libre gutxiago dago. Azken batean, klasearen dinamika zurrunagoa bihurtzen da. Hori horrela, Lehen Hezkuntzako ikasleek zer egin galdetu behar dute urrats bakoitzean; aspertu egiten dira eta haserretu egiten dira burutu beharreko lana edo ataza amaitu dutelako. (Bisquerra, 2009).

Konfiantzaren Pedagogia gelaren antolamenduan hasten da. Ohiko antolaketaren aurrean, zeinetan irakaslearen tokia nagusi den eta ikasleak aurrera begira jartzen diren sistema honetan, irakaslearen tokia eta papera erabat aldatzen da. Irakaslearen rola ez da klase bat ematea, baizik eta ikasle bakoitzak eman behar duen aurrerapauso bakoitzean lagun izatea.

Metodologia hau Lehen Hezkuntzan lantzeko, txokoak, edota ikaskuntza kooperatiboa erabil daitezke, batik bat. Nahiz eta aipatutako estrategia horiek Haur Hezkuntzarako ezagunagoak egin ahal diren, Lehen Hezkuntzako etaparako

besteko egokiak eta aproposak direla frogatu nahi da gradu amaierako lan honetan.

### 3.3.1 Testuinguruak/Txokoak

Eskoletan txokoen bidezko irakaskuntza erabiltzea ez da kontu berria, baina gaurkotasan handiko gaia da (Laguia eta Vidal, 2003). Txokoak ikasgelaren barruan antolatutako espazio mugatu eta balio anitzekoak bezala defini daitezke, zeinetan ikaslea modu aktiboan, ludikoan eta aldi berean lan egiten duten hezkuntza-proiektu edo unitate didaktiko baten inguruan (Coloma, Jimenez eta Sáez, 2007).

Txoko, edo hobeto esanda, testuinguru bakoitzak, bere helburua du eta ikasleak txandakatu egiten dira testuinguru guztietatik pasatuz. Txokoek aukera ematen diete ikasleei askotariko jolasak egiteko, ekintza-aukera ugari dituen esparru batean. Horrela testuinguruek konpetentzia eta ezagutza ezberdinak lantzea errazten dute. Ikasle batek testuinguru bakoitzetik hainbat aldiz pasa daiteke ikasturtean zehar. Behin eta berriro pasatze honek ikaslearen auto-ebaluazio eta auto-erregulazioa ahalbideratzen du (Ibañez, 2005). Esan beharra dago testuinguruak independenteak direla, hau da, ez da beharrezkoa batetik pasatzea beste batetik pasatu baino lehen. 4. Irudian, txokoen ardatz nagusiak azaltzen dira.

ANIZTASUNA	JOLASA	BEHAKETA
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Ikasleekiko erabateko errespetua. Ikasle (pertsona) guztiak ezberdinak dira, haien interesak kontuan hartu eta beharrei erantzuna amatean saiatu beharra dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Hazteko eta ikasteko ezinbestekoa da. Ikasleak bere burua zein mudua jolasaren bitartez ezagutzen ditu, ikaslearentzat bizi-beharra suposatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Irakasleak egiten utzi behar du, ikasleak entzun eta behatu behar ditu, behar besteko erantzuna emateko. Samurtasuna eta denbora eskaini behar zaie ikasleei.</li> </ul>

### 3. Irudia. Txokoen ardatz nagusiak.

Iturria: Ekoizpen propioa Rodriguez (2011) erreferentzia hartuta.

Txokoen bidez ikaskuntza esanguratsua ahalbidezteko, ezinbestekoa da ikasgelako espazioaren banaketa hezitzailearen hezkuntza-asmoen arabera eta lortu nahi diren helburuen arabera planifikatzea. Horretarako, beharrezkoa da, lehenik, metodologia-planteamenduetara egokitzea, ikerketa-estrategietan

oinarritutako metodologia bultzatzeko eta indartzeko. Bigarrenik, komunikazio-eta erlazio-harreman mota guztiak ahalbidetzea. Hirugarrenik, hainbat lan-aukera eskaintzea (librea, gidatua, lagundua) eta azkenik, guztiek eztabaidatu eta onartutako arau batzuk betetzea (Laguía eta Vidal, 2001). Halaber, txokoka lan egiteko, aldez aurretik txoko bakoitzeko espazioa eta materiala prestatu behar da; jarduerak eta teknikak diseinatu behar dira, oinarritzko arauak ezarri eta haurrei autonomiaz moldatzen lagundu behar zaie (Ibañez, 2005).

Horretaz gain, ikasleek testuinguru ezberdinetan burutzen dituzten lanek zertarako bat izan behar dute (haur hezkuntzako testuinguruetan bezala), produkzio edo ebidentzia bat, egindakoa partekatzea ahalbidetzen duena. Zertarako honek zentzua ematen dio egindako lanari eta ikasleen auto-exijentziari, ondo egiteko gogoia eta hobetzeko aukera (autoebaluazioa) bideratzen dituelako. Horri esker, ikaslea ebaluazio prozesuaren parte bihurtzen da, jorratu duen bidearen kontziente izanik (Larrañaga, 2019).

Txokoka egindako lanari edo jolasari esker, epe labur, ertain edo luzerako helburuak lortzeko aukera emango duten jarduerak egin ahal dira. Halaber, txoko bakoitzean helburu zehatz batzuk ezartzen diren arren, helburu orokorrak honakoak dira (Craft, 2002): ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzea eta haurraren garapen orokorra bultzatzea bakoitzaren errealitatea eraiki eta onartzen duten bitartean, eta horretarako, jarduera anitzak eta elkarren artean ezberdinak garatzea. Horretaz aparte, taldeko kideen eta banakakoen arteko komunikazioa sustatu nahi da (ahozko hizkuntza eta idatzizkoa, gorputzezkoa, etab), taldean lan egiteko ohiturak eta portaera-arauak ikasten doazen heinean, taldeko kideen zein banakakoen arteko komunikazioa errazteko.

### ***3.3.2 Ikaskuntza kooperatiboa***

Ikaskuntza kooperatiboa talde txikitik harremanak ardatz hartzen dituen hezkuntza-metodologia bat da, non ikasleek elkar errespetatzen, laguntzen eta lan egiten ikasten duten, honen bidez, elkarrekin ikaskuntza-prozesuan ezarritako helburuak arrakastaz gainditu ahal izateko (Velazquez, 2010).

Ikaskuntza kooperatiboan ikasleen artean dagoen interakzioa nabarmentzen da. Harreman estua sortzea ahalbidetzen du helburu eta xede komunak izatean. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea talde-lanean ez bezala, ikaskuntza kooperatiboan bakoitzak bere lankideen ardura ere baduela, ez bakarrik bere buruarena (Ovejero, 2001).

JARDUERAREN EGITURA INDIVIDUALISTA	JARDUERAREN EGITURA LEHIAKORRA	JARDUERAREN EGITURA KOOPERATIBOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle bakoitzak bakarrik lan egiten du, besteei arretarik jarri gabe.</li> <li>- Ikasleak irakasleak irakatsitakoa ikastea biltzan da.</li> <li>- Helburu hori banaka lortzen dute, haien ikaskideel helburu hori bete edo ez <b>(EZ DAGO elkarren arteko mendekotasunik helburuetan).</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasle bakoitzak bakarrik lan egiten du, bere ikaskideekin lehiatuz.</li> <li>- Ikasleak irakasleak irakatsitakoa ikastea biltzen da, baina besteek baino lehenago eta gehiago.</li> <li>- Ikasleek heburu hori lortzen dute baldin eta besteek- eta kasu horretan bakarrik-lortzen ez badute <b>(elkarren mendekotasun NEGATIBOA helburuetan).</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleek lan talde txikiak osatzen dituzte, elkar laguntzeko ikasteko orduan.</li> <li>- Ikasle bakoitzak ikastea ez ezik, bere ikaskideek ere ikas dezaten laguntzea biltzen da.</li> <li>- Ikasleak helburua lortzen du baldin eta besteek ere- eta kasu horretan bakarrik-lortzen badute <b>(elkarren arteko mendekotasun POSITIBOA helburuetan).</b></li> </ul>

4. **Irudia.** Jarduera ezberdinen helburuak (ekoizpen propioa).

Ikaskuntza kooperatiboa metodologia aktiboa da, gizarte elkarrekintzan oinarritzen dena. Hain zuzen, ikaskuntza kooperatiboan talde txikiak egiten dira, eta talde lanean aritzen dira norbere errendimendua nahiz besteena hobetzeko (Cano, 2011). Ildo horretatik, Pujolàsek (2002) ikaskuntzarako onuragarriak diren ikaskuntza kooperatiboaren hainbat ekarpen aipatzen ditu:

1. Esperientzia lehiakor eta indibidualistekin konparatuta, harremanak askoz positiboagoak izatea eta sinpatia, arreta, kortesia eta elkarrekiko begirunea

- azaleratzea bultzatzen da. Jarrera positiboak garatzea, irakasleen taldera eta eskola-instituzio osora zabaltzen dira.
2. Metodo lehiakor eta indibidualistekin alderatuta, askoz nabarmenagoak dira ikasleen errendimendu- eta produktibitatea.
  3. Kooperatiba-estrategiek ikasle-mota guztien etengabeko ikaskuntza bultzatzen dute. Ikasteko zailtasun gehien dituztenak ez ezik (hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne), ikasteko gaitasun handiena dutenek ere parte hartzen dute.
  4. Metodo kooperatiboei esker, irakasleek aukera dute ikasleekin arreta pertsonalizatua izateko eta ikasgelan profesional berriak sartzeko (laguntza-irakasle espezializatuak, hezkuntza berezikoak, psikopedagogoak... izan daitezke).
  5. Lankideekin lankidetzan aritzeko metodoak eta lankidetzan horren balorazioak osasun psikologiko handiagoa eta autoestimu handiagoa izatea eragiten dute.
  6. Norbere buruarekiko konfiantza areagotzen du, ikasleek elkarrekin lan egiten dutenean eta elkarri ideiak eta iritziak aldatuz jarduten dutenean, produktibitate handiagoa lortzen dute, eta horrenbestez, arreta eta motibazioa handitu egiten dira.
  7. Ikasleen arteko laguntasunari esker eta talde bat izatearen kontzientzia garatzeari esker, autoestimu hobea lortzen laguntzen da.

Esandakoak biribiltzeko, azpimarratzekoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan lan egiteko metodoak esperientzietan eta jarduera praktikoetan oinarritu behar direla, eta afektu- eta konfiantza-giroan aplikatzea ezinbestekoa dela, gizarteratzea eta autoestimua bultzatzeko (Pujolás, 2002). Autoestimua garatzeko jarduera atsegina sortzea beharrezkoa da nor bere burua baieztatzeko eta bizipenak kanpora ateratzeko (Navarro, 2013).

Laburbilduz, ikaskuntza kooperatiboaren asmoa taldean lan egiteko ohitura onak eskuratzea eta ikasleen autonomia sustatzea da. Ikasketa mota honek ikasleen trebetasunak indartzen ditu, ikaskideekiko harremanak, autoestimua eta zailtasun akademikoak dituzten haurren onarpena hobetzen delarik (Cano, 2011).

Halaber, txokoei esker ikasleek taldean lan egiten, eztabaidatzen, laguntzen eta errespetatzen ikasten dute, aldi berean, haien ezagutzak eraikitzen doazen heinean (Craft, 2002).

Amaitzeko, bi metodologia hauekin, ikaskuntza esanguratsua ahalbidetu eta txokoetan lan eginez, egindakoari erabilgarritasuna bilatu nahi izan da modu praktiko, ludiko eta esperimental baten bitartez. Ondorioz, ikasleek Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara egin beharreko jausia leundu eta hezkuntzan modu progresibo batean aurrera egitea lor dezaten. Beti ere, batetik, kooperazioan lan eginez eta, bestetik, behar duten autonomia eta konfiantza bereganatuz. Orrialde hauetan aurkeztu diren teoriak nola gauzatu daitezkeen LHko 3. mailako gela batean azalduko dira.

## 4. METODOA

### 4.1 Partaideak

Esku hartze hau Ondarroako ikastola bateko Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan garatu da. Gela 8 neska eta 10 mutil ez osatuta egon da, guztira 18 ikasle. Ikastola horrek konpetentzietan oinarritutako metodologia eraginkor bat du. Jakitearen logikatik egiten eta erabiltzen jakitearen logikara igarotzen dena. Ikaslea da hezkuntzaren xede nagusia eta ikaskuntza esanguratsua bultzatzen duena. Honen abiapuntutzat: jolasa eta manipulazioa. Aipatzekoa da 2017/2018ko ikasturtetik, ikastola, konfiantzaren pedagogia Lehen Hezkuntzako bat eta bigarren mailan txertatzen hasita dagoela, Haur Hezkuntzatik jada aurretiaz lantzen ari den metodologia, alegia.

### 4.2 Datuak biltzeko prozedura eta teknika

Ikaslearen irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko emaitza osoa izateko, ebaluazioa jarraitua izan behar da (Zabalza, 2002). Hau horrela izanik, esku hartze honetarako, ebaluazioa behaketan oinarritu da, hau da, prozesu osoa ebaluatu da ikasle bakoitzaren erritmo eta beharrak kontuan hartuta.

Ikerketa hau egiteko honako hauek izan dira datuak biltzeko erabili izan diren tresnak: alde batetik, irakasleak taldeak behatuko dituzenez, behaketa-taula bat izango du (lehenago, irakaslearen rol atalean aipatu diren Fernandez (2009)

behatzeko puntuen arabera sortu da behaketa taula). Behaketa-taula horrek izan daitezkeen zailtasunak hautemateaz gain, haurren ahalmenak eta trebetasunak ezagutzeko eta ikasle bakoitzaren ezaugarri garrantzitsuenen oharrak hartzeko ere balio du.

Bestalde, aurrera eramandako jarduera bakoitza ebaluatzeko (jardueraren beraren plangintza eta antolaketa), jarduera beraren ebaluazioa, antolaketa eta plangintza zehazten dira, etorkizunean hobetzeko balioko dutenak.

Ikasleen banakako ebaluazioa ere oso garrantzitsua da ikasleak jabetu daitezzen zer ikasi duten eta nola egin duten. Banakako ebaluazio prozesu hori, askotan, modu naturalean gertatzen da ikasgeletan eta eguneroko lanean. Hala ere, positiboa da ikasle bakoitzak, jardueren eta proiektuaren inguruan duen gogobetetze-maila azaltzeko.

Ebaluazioa amaitzeko, ikasleek elkar ebaluatu dute. Prozesu hori ostiraletan 12:00-12:30 ordu-tartean, talde-giro atsegin batean burutu da. Batzar horretan, asteko jarduera bakoitzarekin ateratako ondorioak azaldu dira, eta prozesuan zehar esperientziak, ikaskuntzak eta sentimenduak partekatu eta azaldu ahal izan dituzte.

### 4.3 Jarduerak

Esku hartze hau bi blokek osatzen dute. Alde batetik, I. Blokean daude gelan egin diren 6 txokoak, hain zuzen, matematika, hizkuntza, natur zientziak, arte plastikoak, eraikuntza eta jolas txokoa. II. blokean gelatik kanpo burututako 4 jolas kooperatiboak: Giza korapiloa, hizkiak gara, egunkari kooperatiboak eta koloretako mundua. I. Blokeko jarduerak bi asteko iraupena izan dute, asteen bi ordu eskainiz. Matematika txokoa zein hizkuntza txokoari, bi saio gehiago eskaini zaie gehiago indartu beharreko jakintza arloak zirelako. II. blokeko jarduerari erreparatuz, saio bakar batean egin ziren guztiak, tutoretza orduan, guztira ordubeteko iraupenarekin.

Gainera, irakasle baten laguntza gehiago behar duten txokoak (matematika edota hizkuntza txokoa) laguntza gutxiago behar duten txokoekin (arte-plastikoen txokoa, eraikuntza txokoa edo jolas txokoa) konbinatu dira, ikasleei arreta



pertsonalizatua egin ahal izateko, eta ikasleen beharrei erantzuteko. 6. Taulan ikus daiteke sekuentzia diseinua.

6. Taula. Jardueren nondik norakoak

I. BLOKEA: TXOKOAK				
TXOKOA	MATERIALA	ESPAZIOA	DENBORA	TALDE MOTA
1. Matematika txokoa (2 saio)	Balantza, harriak, dilistak eta puxtarriak	Gela egonkorra	30'	Launaka
2. Hizkuntza txokoa (2 saio)	Orri zuria, arkatza, borragoma, hiztegia, piktogramak eta grabagailua	Gela egonkorra	30'	Launaka
3. Natura txokoa	Entziklopediak, taldean betetzeko fitxa eta arkatza	Gela egonkorra	30'	Launaka
4. Arte plastikoen txokoa	Egunkariak, itsasgarria, artaziak, kartulina eta haria	Gela egonkorra	30'	Banaka
5. Eraikuntza txokoa	Blokeak, birziklatutako kutxak, egunkariak, zeloa eta artaziak	Gela egonkorra	30'	Binaka
6. Jolas txokoa	Xakea eta kartak	Gela egonkorra	30'	Binaka
II. BLOKEA: JOLAS KOOPERATIBOA				
JARDUERAREN IZENA	MATERIALA	ESPAZIOA	DENBORA	Talde mota
1. Giza korapiloa	-	Jolastokian	15'	Talde handian
2. Hizkiak gara	Erlojua	Psikomotrizitate gelan	15'	Talde handian
3. Egunkari kooperatiboak	Egunkariak eta musika	Psikomotrizitate gelan	15'	Talde handian
4. Koloretako mundua	Gometxa ezberdinak	Psikomotrizitate gelan	15'	Talde txikian

## **I. BLOKEA: TXOKOAK**

### **4.3.1. Irakaslearen rola txokoetan**

Irakasleak lan-txokoetan hartu behar duen papera, garrantzitsua da ordenari buruzko kontzeptua erabat aldatzeko beharra azpimarratzea, txokoka antolatutako eskola batek kaosa eragin baitezake (Laguía eta Vidal, 2013). Lan egiteko modu horrek ahalegin handiagoa eskatzen dio, irakasleak ezin du

jardueren plangintza itxi batetik abiatu, baizik eta bildutako informazioa gidatu, aukerak eskaini, bilatu eta ikertu, iradoki, planteatu, sustatu, forma eman, etab. (Paniagua eta Palacios, 2005).

Beraz, irakasleak baldintza ezin hobeak eta funtsezkoak antolatu eta aurreikusi behar ditu, ikasleak bere ikertzeko eta sortzeko gaitasuna gara dezan. Gainera, etengabe behatu behar ditu haur bakoitzaren jarduerak, behar adina esku hartzeko eta bere dimentsio guztietan garatu ahal izateko (Laguia eta Vidal, 2003).

Fernández autoreak (2009) dio alderdi hauek behatu behar dituela irakasleak txokoetan:

1. Ikasleen arteko harreman afektiboak
2. Arauak betetzea
3. Autonomia
4. Sormena eta irudimena
5. Lortzen diren kontzeptuzko ezagutzak
6. Ordena-ohiturak
7. Materialak eta gainerako lankideak errespetatzea.
8. Talde-lanari dagokionez duten jarrera
9. Ekimena
10. Erantzukizunaren zentzua


Bestalde, ikaslearen ikaskuntza testuinguruarekin duen harremanaren araberakoa denez, testuinguru zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta aukera gehiago daude elkarreraginean, garapenean eta, beraz, ikaskuntzan. Irakasle baten zeregin nagusia hezkuntza-testuinguru aberatsak diseinatzea da (jarduerak planteatzea, lantaldeak sortzea, etab.) eta gida gisa jokatzeko, erantzun burutuak eskaini ordez, erantzunak bilatzeko alternatibak proposa eta lagun ditzan.

Gorago azaldu den bezala, irakaslea da “aldamio” gisa jarduten duena, ikasleak urratsez urrats aurrera egin dezan behar diren laguntzak eskainiz. Era honetan, irakasleak ideia berriak proposatu, ikasleen interesen eremua zabaltzeko eta baliabide berriak erabiltzeko gonbidatzen ditu. Sanchidrián eta Ruíz (2010) planteatzen duten moduan, “irakaslearen papera, ikasleak arazoetarako konponbideak bilatzera bultzatzea da, edo, gauza bera dena, ikasten ikastea” (301. or.).


### 4.3.2. Txokoan antolamendua

Gelako txokoan antolamendua bisualagoa izateko eta hobeto ikusteko, 1. Planoan azaltzen da gelako espazioaren antolakuntza plana. Kolore urdinez ageri diren txokoak kolore berdez irudikaturikoak, irakaslearen presentzia gehiago behar dutenak dira indibidualagoak dira. Txokoan antolaketa horrelakoa izatea erabaki da ikasleek behar duten autonomia falta indartzeko eta taldean elkarri lagunduz ikasteko. Talde bakoitza egun batean bi txokotatik pasatzen da, hortaz, txokoak egiten diren hurrengo saioan, gainontzeko bi txokoetan jesarriko dira.

#### 1. Planoa. I. blokeko txokoan lehenengo saioa



#### 2. Planoa. Blokeko txokoan bigarren saioa



Bloke honetan aurrera eramandako 6 txokoak (matematika, hizkuntza, natura, arte-plastikoak, eraikuntza eta jolas txokoa) azaltzen dira. Natura, eraikuntza eta jolas txokoa jarduera saio bakarra egin da. Gainontzeko txokoetan bi jarduera burutu dira.

## 1. Matematika txokoa

1. MATEMATIKA TXOKOA
<p><b>1. Oinarrizko kompetenziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p> <p>B. <u>Diziplina-kompetenziak</u>: matematikarako kompetentzia, kompetentzia motorra.</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.</li> <li>- Talde-lanean jardutea, arduraz, elkarlanean, elkartasunez eta modu konstruktiboan.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbakien deskonposaketa</li> <li>- Magnitudeak</li> <li>- Oinarrizko eragiketak</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hamarrekoen eta ehunekoen deskonposaketa egin eta ulertzea</li> <li>- Oinarrizko batuketak egitea</li> <li>- Pisu eta balantza modu egokian erabiltzea</li> <li>- Batugaien deskonposaketa egiten moldatzen da</li> <li>- Jarrera aktiboak izatea eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak.</li> <li>- Lankidetzaren eta parte-hartze arduratsua izatea, eta elkarrizketetan eta eztabaidetan gainerako pertsonen ideiak eta ekarpenak desberdinak direnean errespetuz eta tolerantziarekin onartzea</li> </ul>

### 1. ariketa: Pisu lantzen

Lehenengo jardueran, pisuarekin ikasle bakoitzaren pisua neurtu eta talde fitxan jaso dute. Ondoren, bikoteka jarri dira eta bi ikasleek batera pisatzen duten batuketa egin dute, hau ere taldeko fitxan jasoz. Geroxeago, datuak aztertu eta

lauko taldeetan, zein bikotek pisatzen duten gehien eta zeinek gutxien ikusi dute. Amaitzeko, pisuak kilogramoetatik gramoetara pasatu dituzte.

Bigarren jardueran, balantza erabili da zenbait objektu pisatzeko, hau ere 4ko taldeetan jesarrita. Lehendabizi, balantza hau orekan mantentzeko bi alderdiak batuz 100 gramo izatea lortu behar dela azaldu zaie. Ondoren, fitxa banatu eta objektu ezberdinak (puxtarriak, harriak eta dilistak) pisatu behar izan dituzte. Jardueraren atal honetan, esperimendatzea nahi izan da bakarrik, hau da, 5 minutu ibili dira nahi bezala objektuak pisatzen. Jarraitzeko, fitxan agertzen diren 3 galderei erantzun diete: 1. Saiatu asmatzen zenbat pisatzen duen harri handi batek eta geroxeago balantza erabiliz konprobatu ezazue; 2. Zerk pisatzen du gutxien harri handi batek ero hiru harri txikik?; 3. Zerk pisatzen du gutxien 80g dilistak edo 3 puxtarrik?. Jarduera ebaluatzeko 3 tresna izan dira: bitarteko behaketa, amaierako talde elkarrizketa 4 item erabilita eta burutu duten fitxa.

## 2. Hizkuntza txokoa

2. HIZKUNTZA TXOKOA
<p><b>1. Oinarrizko kompetentziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p> <p>B. <u>Diziplina-kompetentziak</u>: Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikusentzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazioegoerei aurre egiteko.</li> <li>- Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, unean uneko komunikazio-premiei behar bezala erantzuteko.</li> <li>- Hizkuntzen erabileraren oinarrizko konbentzio eta araei buruz gogoeta egitea, eta konbentzio zein arauok behar bezala aplikatzea, testuak ulertzeko eta sortzeko prozedura nagusiak aintzat hartuta.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko elkarrekintza</li> <li>- Mintzamina eta idazmina</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p>

- Solasaldiak behar bezala hasi, jarraitu eta amaitzen ditu.
- Solasaldietan parte hartzen du eta komunikazio trukearen oinarrizko arauak errespetatzen ditu.
- Euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera du.
- Ahozko testuak era argian aurkezten ditu eta idatzizko testu sinple eta txukunak sortzen ditu, betiere, eredu argiak oinarri hartuta: testu generoaren egitura kontuan hartuz, koherentzia minimoa bat erakutsiz, oinarrizko hiztegia eta gaiaren ingurukoa eta, gelan landutako hizkuntza baliabideak erabiliz.
- Ahoskera, intonazio eta gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.
- Ortografia naturala eta gelan landutakoa erabiltzen du.
- Puntua, koma, galdera eta harridura ikurrak erabiltzen ditu.

### 1. ariketa: ahozko kontuak.

Ikasleak 4ko taldeetan jarri eta taldekide bakoitzak 3 piktograma (ikastolako materiala) hartu ditu ausaz. Denbora mugatu bat izanik (2-3 min gutxi gorabehera), banaka, kontakizun bat asmatu behar izan dute. Taldeko beste kide batek, bitartean, ahots-grabagailuaren bitartez kontatutakoa jaso du.

### 2. ariketa: Zer gertatu da?.

Ikasleei istorio baten hasiera eman zaie: “Behin batean, ikastolatik etxerako bidean zihoan ume batek urrezko giltza dotore bat aurkitu zuen kalean. Umeak, giltzaren aurrean geldirik, giltza horrek zer ireki ote zuen galdetzen zion bere buruari”. Ikasleek, banaka, istorioaren korapiloa eta amaiera eman behar izan dute. Noizbehinka irakaslea haien istorioak irakurtzen joan da, ea koherentzia zuten ala ez ikusteko. Behin istorioa amaituta, akats ortografikoak zuzendu dira. (gerora, emaitzen atalean azalduko da zehatzago). Ebaluatzeko, behaketa eta ikasleek eginiko ipuinak baliatu dira. Akats ortografikoak zuzendu diren arren, ez dira ebaluatuak izan. Jarduera honen helburua ipuina sortzea izan da. Horregatik, haien lanak irakurrita bakoitzak izandako ekimena, lan egiteko gogoia zein arreta da ebaluatu dira.

## **3. Natura zientzien txokoa**

### 3. NATURA-ZIENTZIEN TXOKOA

#### **1. Oinarrizko kompetentziak:**

A. **Zeharkakoak:** Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

B. <u>Diziplina-konpetentziak</u> : Zientziarako konpetentzia.
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Natura-inguruneko elementu esanguratsuekin lotutako galderak eta problemak identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, banaka nahiz elkarlanean metodologia zientifikoaren estrategiak erabiliz.</li> <li>- Zientziaren eta teknologiaren berezko prozedurak aplikatzea, material, substantzia eta objektu batzuen propietateen ezagutza baliatuta, aurrez zehaztutako problema edo behar bati erantzuteko proiektuak, gailuak eta tresna soilak planifikatzeko, diseinatzeko eta egiteko.</li> <li>- Natura-ingurunean agerian jartzen diren ezaugarriak eta erlazioak erreparatzea, haiei buruzko galderak egitea, identifikatzea, sailkatzea eta azaltzea, horretarako askotariko ikerketa-materiala erabiliz.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaki bizidunak</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Galderak ebazteko hipotesi egiaztagarriak egiten ditu.</li> <li>- Azalpen arrazoituak ematen ditu, hipotesia egiaztatzen dela edo ez dela egiaztatzen adierazteko.</li> </ul>

1. ariketa: Goazen ikertzerak!

Txokoak prestatu aurretik, ikasleei galdetu zaie natur zientzian landu beharreko gai berriari buruz (animaliak), zer dakiten eta zer jakin nahi duten galdetu zaie. Guztiek batera ideia nagusiak adostu ondoren (Animalien nutrizioa, ugalketa, ornodunen eta ornogabeen sailkapena), 4ko talde bakoitzak honako galdera hauei erantzun behar izan diete:

1. Taldea: zer jaten dute?
2. Taldea: Zer esan nahi du, obiparo ala bibiparo izateak?
3. Taldea: Nola sailkatzen dira ornodunak?
4. Taldea: Nolakoak dira ornogabeak eta nola bizi dira?

Galderei erantzuteko, txokoa gelako entziklopedia eta aldizkariekin prestatu eta behar duenak ordenagailua erabiliz, ikertzeari ekin diote. Amaitzeko, talde bakoitzak bilatutako eta antolatutako informazioa gainontzeko ikaskidei azaldu die. Aurkezpenak Natur zientzien ikasgai burutu dira. Ebaluazio tresnei dagokienez, behaketa, 7.3 eranskinean jasotako talde ebaluazioa eta ikasleek eginiko aurkezpenak erabili dira.

#### 4. Arte plastikoen txokoa

4. ARTE-PLASTIKOEN TXOKOA
<p><b>1. Oinarrizko kompetentziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p> <p>B. <u>Diziplina-kompetentziak</u>: Arterako kompetentzia, gaitasun motorra</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, sormen-lanetarako.</li> <li>- Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.</li> <li>- Norberak egindako artelanetan konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzea, eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpen itzelaz jabetzea, autoestimuan aurrera egiteko eta norberaren ideien eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.</li> </ul>
<p><b>Ebaluazioa</b></p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du marrazkiak eta plastikako lanak egitean.</li> <li>- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak landu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen ditu.</li> <li>- Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak.</li> <li>- Marrazkiak, margolanak, collageak, bolumenak eta antzeko lanak egitea.</li> </ul>

##### 1. ariketa: Sortzen!

Egunkariak, kartulinak, kola eta artaziak erabilia, bakarka pertsonaia edo animalia bat sortzea zen zeregina. Irudia sortzeko, forma geometrikoez (zirkulua egiteko edalontzi bat, esaterako) eta erregelez baliatu behar izan dira. Nahiz eta jarduera askea izan, ideiak hartzeko, zenbait eredu eman zaie (animaliena: katua, untxia, hartza eta txoriarena). Ikasle guztiek haien artelanak bukatu dutenean, gelako txoko zurian itsatsi dute ikasle guztiek denen lanak ikus ditzaten. Bi jarduera hauek behaketa eta egindako lanen bitartez ebaluatu dira.



## 5. Eraikuntza txokoa

5. ERAIKUNTZA TXOKOA
<p><b>1. Oinarrizko kompetentziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p> <p>B. <u>Diziplina-kompetentziak</u>: Matematikarako kompetentzia, Arterako kompetentzia, gaitasun motorra.</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Objektuak zuzenean edo zeharka alderatzea, luzerari, pisuari/masari edo edukierari erreparatuz.</li> <li>- Neurketen emaitzak (distantziak, tamainak, pisuak, edukierak...) iritzira kalkulatzeko, eguneroko bizitzako egoeretan.</li> <li>- Psikomotrizitate fina eta eskuen erabilera trebea landu.</li> <li>- Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, sormen-lanetarako.</li> <li>- Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.</li> <li>- Norberak egindako artelanetan konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzea, eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpen itzelaz jabetzea, autoestimuan aurrera egiteko eta norberaren ideien eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzera, pisua/masa eta edukiera.</li> <li>- Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea.</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du oinarria egiterakoan.</li> <li>- Oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak landu, eta bere ekoizpenetan erabiltzen ditu.</li> <li>- Errespetatu egiten ditu lanak eta bere zein besteren ekarpenak.</li> <li>- Marrazkiak, margolanak, collageak, bolumenak eta antzeko lanak egitea.</li> </ul>

### 1. ariketa: Ea zenbat diraun!

Ikasleek, binaka, oinarri sendo bat eraiki behar izan dute, artaziak, zeloa eta papera erabiliz, inolako eredurik gabe. Sortutako oinarriak frogatzeko, tamaina eta forma ezberdineko piezak jarri dituzte, hortaz, zenbat eta pieza gehiago jarri eraikitako oinarriaren gainean, are eta sendoago den seinale. Jarduera hau ebaluatzeko, etengabeko behaketa erabili da.

## 6. Jolas txokoa

6. JOLAS TXOKOA
<p><b>1. Oinarrizko kompetentziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p> <p>B. <u>Diziplina-kompetentziak</u>: Matematikarako kompetentzia, kompetentzia motorra (fina).</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Psikomotrizitate fina eta eskuen erabilera trebea landu.</li> <li>- Buruzko kalkuluak egiteko erabilitako prozesua ahoz edo/eta idatziz azaltzea.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Buruzko kalkuluak.</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du.</li> <li>- Buruzko kalkuluak modu egokian garatzen ditu.</li> </ul>

### 1. ariketa: Xake eta eskoba!

4ko taldeak egiten direnez txokoetan, bi ikasle xakean jolastu dira eta beste biak, aldiz, kartetan (jolas bakoitzean 15 minutu). Xakea bigarren mailan ikasi zuten, beraz, ez da beharrezkoa izan azalpenik ematea. Gainera, behar izan duten kasuetan, taldeetan banatuta zeudenez, elkarri azaldu diete. Karta jokoa “eskoba” izan da, hau da, 15 zenbatzea (karta gehien dituenak amaieran partida irabazten du). Buruzko kalkuluak egin dituzte jolasten duten bitartean. Txoko hau ebaluatzeko, batetik parte hartzea eta jarrera izan da gehien bat behatu dena (kontzentrazioa, arreta, buruzko kalkuluak egiteko denbora) eta, bestetik, talde elkarrizketa, hau da, emaitzen atalean azaldu diren 4 itemak.

## II. BLOKEA: JOLAS KOOPERATIBOAK

Atal honetan, II. blokeko dinamikak nola burutu eta ebaluatu ziren azaltzen dira (4. eranskinean jarduera guztien argazkiak daude ikusgai).

7. JOLAS KOOPERATIBOAK
<p><b>1. Oinarrizko kompetentziak:</b></p> <p>A. <u>Zeharkakoak</u>: Elkarbizitzarako kompetentzia, ekimenerako eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.</p>

<p><u>B. Diziplina-konpetentziak:</u> Konpetentzia motorra.</p>
<p><b>2. Helburu didaktikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneke lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.</li> <li>- Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.</li> <li>- Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.</li> </ul>
<p><b>3. Edukiak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-lana eta lankidetzalana bultzatzeko estrategiak sustatzea.</li> <li>- Gatazkak konpontzeko, elkarrizketa erabiltzeko eta bizikidetzalana erabiltzeko trebetasunak.</li> <li>- Elkarrizketa, gatazkak konpontzeko baliabidea.</li> <li>- Ikusmen, entzumen eta ukimen bidez hautemandako estimuluaren aurrean erreakzioen lanketa.</li> <li>- Era desberdinetako desplazamenduak, jauziak eta birak, era koordinatuan eta espazioan ondo orientatuz.</li> <li>- Gorputz postura desberdinetan orekak eta desorekak.</li> <li>- Jolasetan parte hartze aktiboa eta gozamina.</li> </ul>
<p><b>4. Ebaluazio adierazleak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gogoz parte hartzen du eta gozatu egiten du.</li> <li>- Gainontzeko ikaskideak errespetatzen ditu.</li> </ul>

1. ariketa: Giza korapiloa

Denek eskutik helduta, haien artean korapilo moduko bat eginez lotu dira eta korapiloa nahikoa dela iruditu zaienean, irakasleak “STOP” esan eta zeuden bezala geratu dira. Korapiloan sartu gabe geratu den ikaslea (ilarako azkena), gainontzeko ikasleekin laguntzarekin (korapilotik askatu gabe), pistak eman dizkiote korapiloa askatzeko.

2. ariketa: Hizkiak gara

Talde txikitik banatuta, irakasleak, talde bakoitzari hizki bat aukeratzeko esan dio. Talde bakoitzak, hizkia aukeratu duenean, hizkia irudikatu behar izan du lurrean etzanda (minutu baten). Ondoren, irakasleak irudikatutako hizkia asmatu du eta argazkia ateratu die emaitza ikusi dezaten.

3. ariketa: Egunkari kooperatiboa

17 egunkari gelako zoruan egongo dira jarrita (ikasleak baino egunkari bat gutxiago). Irakasleak musika jartzen duenean, ikasleak aulkien inguruan hasten dira bueltaka: korrika ala dantzan. Irakasleak musika eteten duenean, jokalariek

egunkari batean kokatu behar dute (oinak soilik egunkarietan jarriz, ezin da zorua ukitu). Pixkanaka, irakaslea egunkariak erretiratzeko joan da, hortaz, musika gelditzen denean, ikasleak elkar estuki heldu dira inor kanpoan gera ez zedin. Jokoa irabazteko, inor ezin zen kanpoan geratu. Joko hau aulki joko klasikoaren oso antzekoa da baina era honetan, ez du irabazten jokalaria bakar batek gainontzekoak kanporatu direnean. Alderantziz, talde bezala irabazi edo galtzen da, elkarrekiko lankidetzaren arabera.


#### 4. ariketa: Koloretako mundua

Ikasleei gometsa bat jarri zaie, berdina (triangelu, lauki eta borobil formakoa). ikasle bati izan ezik. desberdina zen gometsa bat jarri zaio. Elkarri ezer esan gabe, bakoitzak gometsaren forma asmatu behar izan du gometsa berdina zituztenen artean biltzeko (esaterako, nik aurrekoaren gometsa ikusita, mimikaren bitartez, beste pertsona baten forma berdina duela esan ahal diot eskuarekin seinalatuta). Pixkanaka, formaren araberrako taldeak egiten joango dira, gometsa ezberdina duen ikaslea izan ezik. Jarduerari amaiera emateko, borobilean elkartu gara eta bakarrik geratu denari zein gainontzekoei nola sentitu diren galdetu zaie. Horrela, “ezberdina” izatearen inguruan hitz egin da eta talde baten partaide izatearen garrantziaz hausnartzeko aukera egon da.

## 5. EMAITZAK

Txokoen esku hartzea egin bitartean nabarmentzekoak diren lau alderdiri buruz hitz egingo da: 1. Ikasleen inplikazio maila txokoetan zein jolas kooperatiboetan, 2. Ikasleen jarrera ariketarekiko, 3. Motibazioa eta 4. Talde-lana. 4 faktore hauek neurtzeko aurreko orrialdeetan agertu den 2. Taula erabili da, hain zuzen, irakaslearen behaketa taulatik. Ikasleen inplikazio mailari dagokionez, ikasleen %100ek 6 txokoetatik 4tan aktiboki parte hartu zuten. Beste bi txokoetan (Natur zientzien txokoa eta Eraikuntza txokoa), inplikazio maila apur bat baxuagoa izan zela ikus daiteke. Hala ere, lehenengoan izandako inplikazio maila %70ekoa da, eta bigarrean, %80koa, hortaz, inplikazio maila altua izaten jarraitzen du (ikus 7. Taula).

7. taula. Ikasleen inplikazioa, jarrera, motibazioa eta talde lana 6 txokoetan.




Jarrerari dagokionez, ikasleengandik jasotako eta erakutsitako jarrera positiboa izan da. Matematika, hizkuntza eta natur zientzien txokoetan, jarrerarekiko portzentajeak jaisten direla ikus daiteken arren, oraindik ere hauen jarrera positiboa izaten jarraitzen du %70eko portzentajearen baitaude.

Ikasleek erakutsi zuten motibazio mailan oinarrituta, azpimarratzekoa da emaitza altuak jaso izana. Motibazioa hainbat alderdiren arabera neurtu da: 1. materialekiko presentazioa, 2. jardueraren aurkezpena, 3. haur bakoitzaren gustuak eta 4. txokoekiko preferentzia. Beraz, zaila izaten da txoko ezberdinetan ikasle guztien motibazioa beti %100koa izatea.

Talde-lanari erreparatuz, ikasleen arteko konexio ona egon zen, irakaslearen azalpenak arretaz entzunez. Eztabaidatzeko edo ideiak emateko uneetan giro lasaia nabarmendu zen, bi salbuespen (bi ikasleren kasua) izan ezik. Bi kasu horietan, ikasle batek nahiago du bere kabuz gauzak egitea, ondorioz, talde lana izanda ere, berak modu indibidualean jokatzen jarraitu du; bigarren salbuespenean beste ikasle batek arazoak ditu besteekin zein bere buruarekin lana egiterakoan eta etengabe behar du arreta bereganatzea, gelako dinamika zenbaitetan oztopatuz (ikusi 8. Taula).

8. taula. Ikasleen banakako ebaluaziotik eskuratutako emaitzak.



8. taulan ageri diren emaitzak (ikusi 7.1 eranskina: irakaslearen behaketa taula), ikasgela osoak, oro har, aurreikusitako helburuak lortzeaz gain, ikaskuntza kooperatiboaren oinarritzko printzipioak ere lortu duen egiaztatu nahi da; talde-lana, gizarte-trebetasunak eta elkarreraginak.


Talde lana eskatzen ziren txoko gehienetan ezezko emaitzak ageri dira. Nahiz eta emaitza hauek baxuak izan, (matematika, hizkuntza eta eraikuntza txokoan), natur zientzien txokoan esanguratsuagoak dira. Esku hartzearen azalpenean esan bezala, txoko honetan, taldeka eta irakaslearen laguntzarik gabe, bilaketa bibliografikoa egitea eskatzen zen. 4 taldeetatik 2 taldeetan egon ziren iskanbilen ondorioz (ikaskide batzuk taldea oztokatzen aritu ziren, ozenki hitz egiten eta zereginarekiko arreta galdua), honako emaitzak eskuratu dira.

Ikasleek izandako autonomiari buruzko emaitzei dagokienez, batetik, ikasleek, banaka, 1etik 10erako parametro bitartean, txoko ezberdinetan izandako autonomia puntuatu dute (ikusi, 9. Taula). Bestetik, irakasleak behaketaren errubrikatik jasotako datuak eskuratu dira (ikusi 10. Taula). Horrela, ikasleek izandako sententzioak, irakasleak behatutakoarekin koherentzia duten antzeman da (ikusi 7.2 eranskina: ikasleen banakako ebaluazio taula).

9. Taulako datuek erakutsitakoaren arabera, ikasle gehienek autonomoago jardun dute hurrengo txokoetan: arte plastiko, eraikuntza eta jolas txokoan. Hain

zuzen, ikasleen %88ak jolas txokoan guztiz bakarrik aritu dela adierazi du; arte plastikoen txokoan, aldiz, %72a; eta eraikuntza txokoan, berriz, %50ak. Matematiketan %45ek 7 ko balorea eman diote; hizkuntza txokoan, ordea, ikasleen %28k 6, 7 eta 8 bitarteko baloreak aukeratu dute. Autonomia portzentairik baxuena natur zientzietako txokoan izan dira.


9. Taula. Ikasleen banakako ebaluaziotik eskuratutako emaitzak.



Irakaslearen behaketatik jasotako datuei dagokienez, matematika txokoan irakaslearen presentzia handiagoa izan da gainontzeko txokoetan baino. Ikasleen autonomia puntuazio altuena atera duten txokoak, arte plastikoak, eraikuntza eta jolas txokoak izan dira.

Halaber, aurreko grafikoan ez bezala, hemen oso antzekoa ikusten da irakasleak izan duen parte hartze maila hizkuntza eta natur zientzietako txokoetan. Hauetan ere irakaslearen inplikazioa ikasleek egin beharreko zereginetan nahiko baxua izanik.


10. Taula. Irakaslearen behaketaren emaitzak.



Ikasleek txokoetan, izandako esperientziak jasotzeko, ikasleen banakako ebaluaziotik beste zenbait datu eskuratu dira. Alde batetik, txokoetan lan egiten ea ondo sentitu diren, eta, bestetik, esperientzia hori errepikatuko ote zuten galdetu zitzairen.

Ikasleen %100ak jarduerak burutu bitartean ondo sentitu dela adierazi du matematika, natur zientzia, arte-plastikoa, eraikuntza eta jolas txokoan. Hizkuntza txokoan, %89a ondo sentitu da, soilik, %11-ak (2 ikasleek), kili-kolo egon direla esan dute.

11. Taula. Ikasleen banakako ebaluaziotik eskuratua.





Txokoen ebaluazioarekin aurrera jarraituz,, jarduera bakoitzaren antolaketa eta praktikaren ebaluaziori ekingo zaio (ikus, 7.4 eranskina: jarduera bakoitza ebaluatzeko txantiloia).

Matematikako txokoa bera egokia izan zen landu nahi ziren edukiei dagokienez (pisua, neurria...). Denboralizazio aldetik esan beharra dago 1. ariketako urduritasunak eta gehiegizko motibazioak denbora galtzea ekarri zuela, hain zuzen, ikasleak ez zeudelako ohituta matematikako jarduera batean denen parte hartze aktiboa izatea (bakoitzaren burua pisatzea, duen pisua bikotekidearen pisuari gehitzea, etc.). Hori dela eta, denborarekin apur bat eskas ibili ziren taldean egin beharreko fitxa amaitzeko. Lau taldeetatik birek jolas orduko 5 minutu geratu behar izan ziren irakaslearen laguntzarekin amaitzeko.

Bigarren ariketari erreparatuz, aipatu behar da ez zela hain mugitua 1. Ariketaren aldean eta ez zuen denboran eraginik izan, beraz, denboralizazioa egokia izan zen esan. Hala ere, %15 ikasleek oraindik ez zuten menperatzen Kg - etatik g-etara pasatzea haiekiko irakaslearen inplikazioa ariketa honetan nabarmenagoa izan zen.

Hizkuntza txokoari helduz, honek sinplea dirudien arren, material, denbora eta espazioa egokia izan zen. 1. ariketa %100ei gustatu zitzaizen, eta jasotako grabazioek ere hori erakusten dute, hala nola, entzuten ziren barre algarak, dinamika egiteko gogoia eta emandako arreta, jarrera eta jarduerarekiko prestutasuna. Hori dela eta, bigarren hiruhileko amaieran egiten den ebaluazioan entzuteko gorde ziren grabazio guztiak. Grabagailuaren bidez ebidentziak jasotzea, ikasleek, taldeetan, benetan nola moldatzen diren ikusteko oso tresna baliagarria izan da. Izan ere, ariketa honetatik ikasleekiko konplizitatea, errespetua eta laguntasuna ikusi ahal izan dira; esaterako, ikasleren batek istorioa nola jarraitu ez zekienez, bere taldekideek ideiak ematen zizkioten istorioa osatzeko. Beste adibide bat, zentzugabekeriaren bat ateratzen zenean, haien artean ez zuela balio adosten zuten (autonomia eta parte-hartze aktiboa). Guzti honek motibazioa pizteko ariketa aproposa dela erakusten du.

Natur Zientzien txokoaren saioa orokorrean (denbora, materiala, plangintza, espazioa...), egokia izan zen. Gainera, emandako baliabideak erabiliz (entziklopediak eta gaiarekiko liburuxkak), galderei erantzun zieten hori egiteko zuten denbora mugatuan.

Arte-plastikoen txokoaren jarduera egiteko ez zen inongo arazorik egon. Espazioarekiko antolakuntza, material eta denbora aldetik oso ondo joan zen. Ikasleak ohituta daude psikomotrizitate fina barne hartzen duten jarduera egitera, beraz, ikasleen %100ek ez zuten inongo laguntzarik eskatu jarduera hau burutzeko.


Eraikuntza txokoari dagokionez, honen plangintza eta antolamendua egokia izan zen, ikasleek lehenengo momentutik ulertu zuten zer zen egin beharrekoa eta ez zuten behar izan aparteko material ez denbora gehiagorik. Materiala partekatu egin behar izan zutela, hau da, nahiz eta 4ko taldeak izan, bi zelo zeuden, beraz, moldatu egin behar izan ziren denbora aprobeztatzeko. Horrela planteatu zen hasieratik talde bezala funtzionatzeko, nahiz eta egin beharreko zeregina bakarkakoa izan.

Jarduera librea zenez, 3, 4, 5 eta 6 hanka zuten oinarri desberdinak eraiki zituzten. Hasierako taldeak, zenbat eta hanka gehiagoko oinarriak sortu, orduan eta erresistentzia gehiagoko oinarriak lortzen zutela ondorioztatu zuten eta gainontzeko ikasleei plazaratu zieten lortutako datu esanguratsu hori.

Jolas txokoaren antolakuntzari helduz, sinplea izan zen. Karta sorta bat eta xake tableroa pieza erabili zituzten. Ikasleek nahi bezala antolatzen ziren (zein bikoteek egingo zuten jolas bata o bestea lehenago). Orokorrean, eskoban ari zirenak jolasten bi aldiz ibiltzen ziren xakeko mahai jolasak denbora gehiago eskatzen duelako. Beraz, xakean behin jolasten ziren eta eskobako bi partida egiten zuten 15 minututan. Geroxeago jolasak aldatu eta beste 15 minututan jolasteko. Ikasleek denbora egoki aprobeztatu zuten eta materiala zaintzeko orduan ere oso adi ibili ziren. Mahai jolas hauek gelakoak dira, hortaz, badakite kontu handiz zaindu behar dituztela etorkizun batean ere jolastu ahal izateko (euria ari duenean eta ezin direnean jolastokira atera, esaterako).

Esku hartze honen I. blokeko ebaluazioaren emaitzekin amaitzeko, 12. Taulako grafiko honetan argi ikusten da, ikasle guztiek txokoetan gehiagotan lan egin nahi dutela.


12. Taula. Txokoetan gehiagotan lan egin nahi duten galdetzearen erantzunak



II. blokeko ebaluazioari dagokionez eskuratutako emaitzak elkarriketa bidez jaso dira. Jarduera bakoitza amaitzerakoan, giro lasai bat sortuz korroan jarri eta taldean nola aritu/sentitu diren komentatu da, bai eta bakarrik aurkitutako momentuetan (egon badira) zer bizi izan duten. Horrela, esperientzia eta bizipenak kontatu dute, hala nola: zer egin duten edo gatazkaren bat egon bada horri buruz hitz egiteko aprobetxatu da momentua. Gutxi gorabehera, 10 minutuko batzarrak egin dira.


Nahiz eta elkarriketak ez diren transkribatu, jasotako datu esanguratsuenak bildu dira, 13, 14 eta 15. tauletan. Datu horretatik, ikasleak taldean lan egiten ondo sentitu direla esan daiteke, ikasleek, burutu diren jolas ezberdinetan inor ez dela bakarrik sentitu adierazi baitute. Guztiek laguntasuna eskaini dutela pentsatzen dute. %88ak taldekideekin ondo konpondu dela uste du, eta ikasleen %83ak talde bezala ondo lan egin dutela adierazi du.

13. Taula. Ikasleen erantzunak jolas kooperatiboetan



Ondorengo grafiko honetan, ikasleak jolas kooperatiboetan nola aritu diren emaitzak ikusten dira, 4 irizpide kontuan hartuta parte hartzea, komunikazioa, enpatia eta kooperazioa


14. Taula. Irakasleak behatutako alderdiak.



Nabaria da parte hartze aktiboa eta haiekiko komunikazioa ikasle guztien partetik eman dela. Enpatiari dagokionez, emaitzak positiboak izan dira. Kooperazioan, aldiz, 4 ikasleengan oraindik jarrera indibidualistak eman direla ikus daiteke eta horrek taldean laguntasun gutxiagoz jolastera eramaten dituela.

II. blokeko ebaluazioarekin amaitzeko, ikasleei lan kooperatiboaren gogobetetasunari buruz galdetu zitzaien, hurrengo taula honetan ikus daitezke jasotako emaitzak.

15. Taula. Lan kooperatiboari buruzko ikasleekiko gogobetetasuna



Ikasleei egindako inkestaren arabera, lan kooperatiboan aritzea ez zaie batere gustatu 0 ikasleri, gutxi ikasle bati, nahiko 2 ikasleri eta asko 15 ikasleri. Bistan dago ondo sentitu direla elkarrekin lanean, egin beharreko zereginak batera lortuz eta horrela, garaipenak elkarrekin ospatuz.

## 6. ONDORIOAK

Gradu amaierako lan honetarako ezarritako helburuak bete direla ikusi da. Batetik, Ikasgelan egin den proiektuak berretsi du, aldez aurretik bilatu den oinarri teorikoan islatu dena. Hau da, iturri bibliografiko ugari aztertu dira, planteatutako metodologia aktiboak zertan oinarritzen diren jakiteko, batez ere, txokoen bidezko ikaskuntzan eta ikaskuntza kooperatiboan oinarrituta. Bestetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan, txokotan lan egiteko moduari buruzko praktika egokia egitea lortu da, eta horri esker, bai gelako haurren autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna areagotu da.

Esku hartzea egin den eskola hau ez da ikasle ugarienetakoa, 18 ikasle, horregatik, errazagoa izan da ikasle guztien jarraipena egitea eta ikasteko prozesuan zailtasun gehien norik zituen ikustea. Ikastetxean txokoen bidezko metodologian lan egiteak ez du inolako eragozpenik sortu, lehenago esan bezala,

ikastetxeak metodologia aktiboago baten aldeko apustua egiten dutelako, eta pixkanaka, honelako errutinak sortu nahi dutelako. Horrez gain, ikasleentzat ere ez da zaila izan metodologia hau jarraitzea, modu dinamikoan ikasi dutelako. Metodologia horien bidez, beren ikaskuntzaren benetako protagonista izatea lortzen dute, irakaslea bigarren mailan utziz eta ezagutzen transmisio hutsaren rol hori kenduz.

Honenbestez, esku hartze honen I. blokeko txokoak, printzipio metodologiko egokiak izanda, ezagutzak garatzeko eta taldean lan egiten ikasteko oso baliabide aproposak izan daitezkeela frogatu da, bereziki, dinamikoak eta askotarikoak izan daitezkeelako (Rodriguez, 2011). Gauzak horrela, txokoak bezalako estrategia metodologikoak LH-ko gelan lantzea posible dela ikusi da, baldin eta, ikasleekiko jarrera egokia eta taldean lan egiteko inplikazioa ona bada. Azken finean, ikasle bat eroso, interesatuta eta motibatuta dagoenean, gehiago ikasteko gai dela erakusten du (Leighton eta Bustos, 2018) eta jasotako emaitzek positiboak izan direla ondorioztatu dute. Iker lan hone bitartez, agerian geratu da talde lana eta berdinen arteko lankidetzaren sustatzea lortu dela.

II. blokeari dagokionez, lankidetzaren eta laguntza egoerak handituz joan dira saioek aurrera egin ahala. Agertu ziren kooperatiba jokabide nagusiek taldearen barruko komunikazio egoerekin zuten zerikusia, eta horrek antolamendu egokia ekarri zuen jardura hobeto egiteko. Izan ere, jolasa, ikasteko modu onenetako bat da haurrentzat, modu sortzaile eta erakargarrian sortzen baitu ikaskuntza (Velazquez, 2010).

Azken finean, horrelako dinamikak informazioa transmititzetik haratago doaz, hezkuntza ulertu eta lantzeko beste begirada bat eskaintzen dituztelako. Kontuan hartu beharreko alderdiak anitzak dira, material, denbora, espazio eta partaideen arabera egokitu beharreko aspektuak behatu behar dira (Jalda, 2003), modu aktiboan jardun, ideiak partekatu, akordioak eta konpromisoak hartu eta eraginkortasunez lan egiteko.

## 7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Proposatutako eta martxan jarritako proiektu pedagogikoari dagokionez, gela zehatz bati zuzendutakoa izan da, beraz diseinua eta sortutako jarduera guztiak ikasle talde zehatz bati erantzuteko egin da. Kontutan izanda, ikastalde horretan ez dagoela behar bereziak diagnostikatuta dituen haurrik.

Proiektuak eraldagarri eta sortzen joaten diren jardueraz osatutako ikaste metodologia izanda, esan daiteke, behar bereziak dituzten haurrei egokitzea ez litzatekeela arazo bat izango. Gainera, gelako ikasle izanda talde osoaren ikaste prozesuaren protagonista bat izango litzateke, eta haur guztiei egokitutako jarduerak egin behar direnez, kontutan izango ziren beharrezkoak diren alderdi guztiak.

Bestalde aipatu beharra dago irakaslearen lana oso garrantzitsua dela. Iker lan honetan azaldu bezala, ezinbestekoa da aldeaz aurretik egin beharreko plangintza. Askotan, honelako metodologiaren lanketak denbora eskatzen du, denbora pentsatzeko, antolatze eta aurrera eramateko. Plangintzak sustatu nahi den hezkuntza-mota osatzen duten printzipioei buruzko hausnarketa zorrotza eskatzen baitu (Isaacs,1997). Nolanahi ere, egingo diren jardueren plangintza egon arren, ez du esan nahi jarduerak planeatuta bezala (bai ala bai) egin behar direnik, hau da, malguak izan behar dira eta uneko baldintza edo beharretara egokitu. Irakaskuntzan, programazioaren edukiak ez ezik, eskolan sortzen diren gizarte-harremanak ere funtsezkoak baitira.

Amaitzeko, honelako proposamenak oso baliagarriak direla esan nahiko nuke. Berezi, metodologia bera erakargarria delako ikasleentzat, eta manipulatzeko, esploratzeko eta esperimendatzeko gaitasunak indartzeko aukera emateaz gain, hezkuntza curriculumeko zeharkako gaitasunak lantzeko okasioa sortzen da (Rodríguez, 2011).

## 8. BIBLIOGRAFIA

- Antero, A. (2016). *Pedagogía de la confianza, marco general de Arizmendi Ikastola*. Ikastolen Elkartea. País Vasco: Arizmendi ikastola.
- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Madrid: Síntesis.
- Blanco Lorente, F. (2007). Desarrollo de competencias docentes en la formación del profesorado. En López Hernández, A. (coord.) *El desarrollo de competencias docentes en la formación del profesorado* (pp. 61-96). Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia. Secretaría General Técnica.
- Cabrera, D. (2012). El milagro de un mundo mejor. *El Cactus*, 1(1), 34-36.
- Carbonell, J. (2001). *La aventura de innovar. El cambio en la escuela*. Madrid: Morata.
- Cristobal, R. (2010) *El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza*. Madrid. Aula práctica.
- Dale, E. (1946) *Audio-visual methods in teaching*. New York: The Dryden Press.
- Del Pozo, M. (2014). *Inteligencias Múltiples en acción*. Barcelona: Tekman books.
- Fernández, A.I. (2009). El trabajo por rincones en el aula de educación infantil. Ventajas del trabajo por rincones. Tipos de rincones. *Innovación y experiencias educativas. Revista digital*. Honako webgunetik berreskuratua: [http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_15/ANA%20ISABEL\\_FERNANDEZ\\_2.pdf](http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_15/ANA%20ISABEL_FERNANDEZ_2.pdf)
- Gabino Navarro, E. (2013). *La transición de Infantil a Primaria de una manera ordenada, progresiva, secuenciada y coherente*. Universidad Internacional de La Rioja, Alicante. Honako webgunetik berreskuratua: <https://goo.gl/BRjoZm>
- Godino J. D., Batanero C. Vicenç F. (2003). *Fundamentos de la enseñanza y el aprendizaje de las matemáticas para maestros*. Universidad de Granada. 2018-04-11an hartua, hemendik: <http://repositorio.minedu.gob.pe/handle/123456789/4829>
- Heziberri 2020. 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9. Zk., 2016ko urtarrilaren 15a. Esteka: <https://www.euskadi.eus/y22bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>



- Ibáñez, C. (2005). *El proyecto de educación y su práctica en el aula*. Madrid: La Muralla.
- Larrañaga, A. (2019, Urtarrila). *Proiektuen bidezko metodologiaren ebaluazioa*. Vitoria-Gasteiz: EHUko Kirol eta Hezkuntza Fakultatea.
- Marina, J. A. (2004). *La inteligencia fracasada. Teoría y práctica de la estupidez*. Barcelona: Anagrama.
- Pérez, Á.I. (2016). Prólogo. En J.J. Vergara (ed.), *Aprendo porque quiero. El Aprendizaje Basado en Proyectos (ABP) paso a paso* (pp. 9-18). Madrid: Ediciones SM.
- Pericacho, F.J. (2014). Pasado y presente de la renovación pedagógica en España (de finales del Siglo XIX a nuestros días). Un recorrido a través de escuelas emblemáticas. *Revista Complutense de Educación*, 25(1), 47-67.
- Rodríguez, J., (2011). *Los rincones de trabajo en el desarrollo de competencias básicas*. *Revista Docencia e Investigación*, 128-129. Honako webgunetik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4009753>
- Sanchidrián, C., Ruíz, J. (2010). *Historia y perspectiva actual de la educación infantil*. Barcelona: Graó.
- Stainback, S. (2004). *Aulas inclusivas. Un modo de enfocar y vivir el currículo*. Madrid: Narcea

## ERANSKINAK

**1. ERANSKINA:** Ikasleen ordutegia esku hartzea izango duten momentuen adierazpenaz.

	Astlehena	Astearte	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
9:00-10:00	Txanela	Soinketa	Matematika	Txanela	Matematika
10:00-11:00	Matematika	Txanela	Txanela	Mate-ikas	Txanela
11:00-11:30	Jolas Ordua				
11:30-12:30	Ingelesa	Musika	Txokoak	Ingelesa	Txokoak
12:30-14:30	Bazkal Ordua				
14:30-15:30	Gaztelania	Ingelesa	Musika	Gaztelania	Soinketa
15:30-16:30	Tutoretza	Kiva	Gaztelania	Plastika	Plastika

\*Kolore laranjaz margoturikoak txokoentzat erabilitako denbora da.

\*Kolore berdez margoturiko laukizuzena, jolas kooperatiboak egindako momentua erakusten du.

**2. ERANSKINA:** Pisua lantzeko fitxa.

- Galderak erantzun:
  1. Pisua neurtzeko ze unitate erabiltzen da?
  2. Bakoitzaren pisua apuntatu
  3. Zenbatu guztira zenbat kg dituzuen
  4. Bikoteka jarri eta kalkulatu zein bikotek pisatzen du gehien? eta gutxien?
  
- Idatzi jasotako datuak ondorengo taula honetan:

4 Taula. Jasotako datuak biltzeko fitxa.

Izena	Bikoteka	Kilogramo eta gramoetan	Gramoetan-g
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			

Balantza hau orekan mantentzeko bi alderdiak batuz 100 gramo izatea lortu behar da. Pisa ezazu ondorengo objektuak:

- Puxtarriak
- Harriak
- Dilistak

Ondorengo galderari erantzun:

1. Asmatu zenbat pisatzen duen harri handi batek
2. Zerk pisatzen du gutxien? harri handi batek edo hiru harri txiki?
3. Zerk pisatzen du gutxien 80g dilista edo 3 puxtarri?

### 3. ERANSKINA: Goazen ikertzera!

<p><b>Animalien nutrizioa (belarjaleak, haragijaleak, orojaleak)</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Zer jaten dute?</li></ul>
<p><b>Animalien ugalketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Zer esan nahi du: obiparo ala bibiparo izatea?</li></ul>
<p><b>Animali ornodunak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Nola sailkatzen dira?</li><li>- Eman sailkapen bakoitzeko, gutxienez, hiru adibide :</li></ul> <p>1</p> <p>2</p> <p>3</p>
<p><b>Animali ornogabeak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Nolakoak dira?</li><li>- Nola bizi dira?</li></ul>

**4. ERANSKINA:** I. blokeko txokoen zenbait argazkiak.



**6. Irudia.** Ahozko kontuak jardueran, zenbait ikasle eta materialen argazkaik




**7. Irudia.** Ikasleek hizkuntza txokoa ipuin baten hasierari korapiloa eta amaiera sortzen.



**8. Irudia.** Ikasleek Natura txokoa informazioa bilatzen.



9. Irudia. Arte plastikoen txokoan artelanak sortzen.



10. Irudia. Arte plastikoen txokoko 2. Jardueran irudiak sortzen.



11. Irudia. Eraikuntza txokoan oinarri sendoak egiten eta horiek frogatzen



12. Irudia. Jolas txokoan xakean jolasten.

**5. ERANSKINA:** Jolas kooperatiboko argazkiak.



**13. Irudia.** Giza korapiloa askatzea lortu dutenean.



**14. Irudia.** Hizkiak sortzen



**15. Irudia.** Ikasleak egunkari kooperatiboan jolasten.





16. Irudia. Koloretako munduan jolasten

**6. ERANSKINA:** Ebaluazio taulak.

**6.1 Eranskina.** Irakaslearentzako behaketa taula.

JARDUERAN		OHARRAK
1	Zer gustatzen zaio gehien/gutxien?	
2	Interesa erakusten du?	
3	Badu ekimenik? Nahiago du besteek esaten dutena/egiten dutena egin?	
4	Badu jariakortasunik materialak aldatzeko, sortzeko, irudikatzen...?	
5	Jarduera/jolas bat egitean, ikaskideek eginikoa errepikatzen du?	
6	Taldean ondo lan egiten du?	
7	Modu autonomoan lan egiten du? Irakaslea gertu izan behar du?	
8	Ordena eta garbitasuna mantentzen ditu?	

**6.2 Eranskina..** Ikasle bakoitzak banakako ebaluazioa egiteko txantiloia.

BANAKAKO EBALUAZIOA				
IZENA:				
TXOKOAK	BAI	KILI-KOLO	EZ	OHARRAK
1	Lehenengo aurkezpenean ulertu dut jarduera			
2	Bakarrik lan egin dut			
3	Talde lanean aritu naiz			
4	Ondo sentitu naiz jarduera egiterakoan			
5	Horrelako esperientzia gehiago izan nahi ditut			

**6.3 Eranskina.** Natur Zientzien txokoan, talde lanaren ebaluazioaren transkripzioak.

JARDUERAN... <i>1. Taldea</i>		Oso ongi	Ongi	Nahiko gaizki
1	Bakoitzak dagokion funtzioa bete du		x	
2	Taldeko kide guztiak parte hartu dugu		x	
3	Era egokian hitz egin dugu		x	
4	Guztien iritzia errespetatu da	x		
5	BALORAZIO OROKORRA	<b>Zenbait momentuetan gehiegi hitz egin dugu</b>		

JARDUERAN... <i>2. Taldea</i>		Oso ongi	Ongi	Nahiko gaizki
1	Bakoitzak dagokion funtzioa bete du	x		
2	Taldeko kide guztiak parte hartu dugu	x		
3	Era egokian hitz egin dugu	x		
4	Guztien iritzia errespetatu da	x		
5	BALORAZIO OROKORRA	<b>Gustora ibili gara guztiok</b>		

JARDUERAN... <i>3. Taldea</i>		Oso ongi	Ongi	Nahiko gaizki
1	Bakoitzak dagokion funtzioa bete du			x
2	Taldeko kide guztiak parte hartu dugu			x
3	Era egokian hitz egin dugu		x	
4	Guztien iritzia errespetatu da	x		
5	BALORAZIO OROKORRA	<b>Taldekide batzuk taldea oztopatzen ibili dira (ozenki hitz egin eta tontokeriak egiten).</b>		

JARDUERAN... <i>4. Taldea</i>		Oso ongi	Ongi	Nahiko gaizki
1	Bakoitzak dagokion funtzioa bete du		x	
2	Taldeko kide guztiak parte hartu dugu	x		
3	Era egokian hitz egin dugu	x		
4	Guztien iritzia errespetatu da	x		
5	BALORAZIO OROKORRA	<b>Ondo moldatu gara</b>		

**6.4 Eranskina.** Irakasleak jarduera bakoitza ebaluatzeko txantiloia.

		BAI	KILI-KOLO	EZ	OHARRAK
1	Ezarritako helburuak lortzeko jarduera egokia izan da?	x			
2	Egokia izan da jarduera aldi berean egiten aritu diren haurren kopurua?	x			
3	Egokia izan da jardueraren denboralizazioa?		x		
4	Ondo joan ahal da jarduera (motibazio-maila eta errendimendua)?	x			
5	Egokia izan da erabilitako materiala? Zerbait falta izan da?	x			
6	Espazioa ondo antolatuta dago? Egoki lan egin daiteke?	x			